

KASOAK EUSKERAN ETA BESTE HIZKUNTZETAN

Gunter Brettschneider (Köln)

1. Hasi nahi nuke Arturo Campion'en gramatika arkitu nituen zati edo zita batzukin:

«La expresión de las relaciones de acción, pasividad, posición, dirección, movimiento, materia, procedencia, posición etc., que modifican ó particularizan el sentido más abstracto de las palabras puras, encomendada en otras lenguas á los «casos de la declinación» y á las «preposiciones», se verifica en euskera por medio de *sufijos*. Estrictamente hablando, el bascuence carece de declinación...» (177).

Gero aipatzen du beste linguista batzuk nola karakterizatu zituzten euskal kasoak edo deklinabidea. Eta konklusioa bezela irakur dezakegu hori:

«Desde el paradigma del Padre Larramendi, remedo de la declinación latina, hasta el del Príncipe Bonaparte, fundado en los principios de la lingüística, la distancia recorrida es inmensa. Cuanto puede conseguir el arte, está completo. Pero la naturaleza del euskera exige otro espacio y proporciones donde pueda removerse con entera libertad. Sigamos á la naturaleza...» (191).

Eta, segitzen diren ehun orrialdetan, esateko zortzigarren kapituluan («La sufijación» delakoan) eta bederatzigarren kapituluan («La sufijación pronominal») adierazten digu xehetasun aunitz – eta neri personalki gustatzen zait nola aukeratzeko perspektiba batzu presentatzen dizkigun orrialde horietan. Adibidez:

«De los sufijos euskaros es posible hacer varias divisiones...» (192).

Gero, noski, jakinarazten digu, perspektiba edo ikusbideak zeintzu diran. Eta, nere ustez, gauza interesgarriena da, nola erakusten digun, kasoek zer erabilmodu dauzkaten; adibidez *-tik*, *-dik*, *-ti*, *-rik* sufijoei buruz:

«Es el sufijo separativo, ó de procedencia material. Presupone el concepto de movimiento, y sirve para marcar el lugar desde donde viene ó arranca la acción...» (217).

Eta azken finean adierazten du —nere ustez argi, garbi eta arras ongi—,

nola van Eys jaunak, okerki eta nahasmendu gehiegi emanaz, explikatu zuen kaso horren egitura ta esannahia.

2. Oharpen horiekin sartu naiz txosten honen problematikan. Dударik gabe kasoak hizkuntz denetan simboltasun aundia dute, zeren eta horiekin perpaus bateko erlazio fundamentalak adierazten bait dira – eta noski perpausen artean izaten diran erlazioak ere bai. Eta horretaz, *Campion*'ek ongi ikusten zuenez, perpausaren *semeion* edo zeinu funtzezkoak dira. Beraz linguistika estrukturalean galdetuko genduke, ze sistema daukaten, ze oposiziotan egoten diran edo, bestela esanaz, ze balio semantiko eman behar zaien kasoei euskarari.

Ohar bat egin nahi nuke: jakina den ezkeroz, munduko hizkuntza denek dauzkate kasoak. Batzu gutxi-xamar daukate: bizpahiru — eta beste batzu asko-xamar daukate: hogeitau gehiago, eta Kaukasiko hizkuntzen artean berrogeitaseirano (*Tabassaranan* – ikus MELC'UK 1984). Eta noski hizkuntza batek kaso gutxi baldin ba'dauka, bi gauza izango litzake: 1. seinalatu behar diren erlazioak beste modu batez egiten dira: adibidez txinoz eta halako hizkuntzetan «kasoak» aditz preposizio bezelakoak («co-verbs») dira: esate baterako 'eman' esan nahi duen aditza (edo lehen esan nahi zuena) orain datiboko preposizioa bezela ibiltzen edo erabiltzen da; (*gei*) edo *yong* 'erabili' aditzak orain instrumentaleko erlazioa markatzen du, *zai* 'egon' inesiboa edo lokati-boa bezela erabiltzen da eta abar. Gauza bigarrena da hori: hizkuntza batek oso kaso gutxi ba'du, kaso haien esannahiak arrunt zabalak edo bagoak izan behar dute, bestela ezin genituzake espresatu hizkuntz-kategorien bidez munduan arkitzen ditugun erlazio denak.

Benjamin Lee Whorf hizkuntzalari famatuak ideia hori honelaxe deskribatu du (ongi ezagutzen ez diren hizkuntzei buruz):

«After categories have been outlined according to configurative facts, it may be desirable to employ functional or operational symbolism as the investigation proceeds. Linked with configurative data, operational descriptions become valid as possible ways of stating the MEANING of the forms, 'meaning' in such cases being a characterization which succinctly accounts for all the semantic and configurational facts, known or predictable». (WHORF 1945. 1 s.)

Oso inportantea da nola karakterizatzen duen Whorf'ek MEANING edo esannahia: kategoria baten esannahiak bere balioa fundamentala euki behar du imajina daitezken kontesto guztietan. Konzepzio hori berdin-berdin agertzen da Roman Jakobson'ek alemanez egindako, baino errusiaren kasoei buruzko lantxoan: «Beitrag zur allgemeinen Kasuslehre» (JAKOBSON 1936).

Lan hori ongi konprenitzeko eta noizik behinka beste hizkuntzei aplikatzeko nozio batzu adierazi behar ditugu.

Lehenbizikoa da **oposizio pribatibo** delakoa (*Trubetskoj*'ek fonologian barneratu zuena). Horrek esan nahi du: bereizitasun bat hizkuntzez errealizatua

baldin ba' da, jeneralki bi bereizgarri (rasgo, trait, feature, Merkmal) korrelatibo dauzkan oposizio baten bidez egiten da. Esate baterako: gizezkoa izatea ala emakumezkoa izatea hizkuntzez seinatzen da halako oposizio batez: EMAKUMEZKOA izatea (baiezko kategorია) ala EMAKUMEZKOA EZ izatea (ezezko kategorია). Ezezko kategoría neutrala da: ez du ezer esaten emakumezkoa izateari buruz:

(1) los trabajadores de la empresa X han decidido...

Esaldi hontan ez da adierazten langille horiek denak gizezkoak diren ala ez. Horregatik esaten dugu: halako oposizio batean kategoría (ingelesez 'term') batez ez markatua dela (hemen 'genus masculinum'), baino oposizioan dagoen beste kategoría (hemen 'genus femininum') **markatua** dela; beraz esaldi hontan:

(2) las trabajadoras de la empresa X han decidido...

emakumezkoak bakarrik aipatuak dira, eta gizezkoak batere ez.

Eta, gauza dena esateko, kontesto batzutan ez markatutako kategoriari adieraziko luke ezezkoa bakarrik:

(3) las trabajadoras piden..., pero los trabajadores no están conformes.

Halako kontesto berezi batean ez markatutako kategoriari seinatzen du markatutako kategoriaren kontrarioa.

Konklusioa:

1. Markatutako kategoriari baiezko bereizgarria seinatzen du (gure ejempluan EMAKUMEZKOA izatea).
2. Ez markatutako kategoriari ez du ezer seinatzen bereizgarri distintiboei edo oposizio horri buruz (EMAKUMEZKOA ala GIZONEZKOA izatea).
3. Baina dagokien kontestotan ez markatutako kategoriari seinatutako luke ezezko kategoría (gure ejempluan GIZONEZKOA izatea).

Oso ejemplu polit bat arkitzen dugu euskaran, ez markatutako kategoría bat nola erabiltzen den: lehen ikusi dugunez 'masculino' delako kategoría ez markatua izaten da jeneroa markatzen duten hizkuntzetan ('femenino' delako markatua izanez geroz). Euskaran, noski, ez dago gramatikako jenerorik. Baina hiketan antzekoa ematen duen fenomeno bat agertzen da: emakume bat bere buruari mintzatzen baldin ba' zaio, gizonen aditzforma, beraz ez markatutako kategoría, erabiltzen du:

(4) ze tontokeria egin diat?

3. Kasoei buruzko oposizio fundamentalak bi erlazio edo funtzio korrelatibotan finkatua da: ekintza egiten duena ('egilea') vs. ekintza sufritzen duena

('pazientea') edo ingelesez ACTOR vs. UNDERGOER (ikus adibidez FOLEY & VAN VALIN 1984). Munduko hizkuntzen beren morfo-sintasian bizpahiru eskema bakarrik arkitzen dugu oposizio hori markatzeko. Hauek dira ergatibozko, nominatibo/akusatibozko eta aktibozko direlako hizkuntzak (ikus adibidez MALLINSON & BLAKE 1981, kap. 2 edo WIERZBICKA 1981). Azkeneko tipo hori kontuan hartzen ez ba'dugu, N/A (nominativo/akusatibozko) eta E (ergatibozko) hizkuntzak eskema batean itxuratu eta gonbaratu genitzake: eskema hontan hiru funtzio agertzen dira: egilea markatzea («O->»), pazientea markatzea («->O»), eta hirugarrena: 'función denominativa' (alemanez: 'Nennfunktion') delakoa («O»), esateko, nola gauza bat hitz batez deitzen edo aipatzen den, eta ez da harrizkekoa, funtzio hori ez markatutako kategoriarren bidez adierazten bada:

(5)	ergatibozko hizkuntzen kasoak	ADIERAZTEKO FUNTZIOAK	nom/akusatibozko hizkuntzen kasoak
	ergativo	O-> (egilea)	
		O (aipatutakoa)	nominatibo
	absolutibo	->O (pazientea)	akusatibo

Taula hontan ikusten dugun oposizioa (erg:abs ala nom:ak) Jakobson'en terminologian «**Bezugskorrelation**» deitzen da. Korrelazio hontan dauden kasoek funtzio berdin-berdinak adierazten dituzte; baina E-hizkuntzetan markatutako kategoria ergatiboa da, N/A-hizkuntzetan ordea akusatiboa. Eskema (5) ez da agertzen Jakobson'en lantxoan, baina ikus, adibidez, nola berak presentatzen digun gai bera (euskera aipatuz ere bai):

«Es gibt Sprachen (z.B. die baskische und die nordkaukasischen), wo die erwähnte ausgeprägteste Funktion des N-s, nämlich die des Subjekts einer transitiven Handlung, zur einzigen Funktion des Kasus wird. Das Verhältnis des merkmallosen und merkmalhaltigen Kasus ist hier im Vergleich mit dem Russischen (und mit den übrigen Nominativ-Akkusativsprachen) ein umgekehrtes: hier besagt nicht der merkmalhaltige Kasus, dass der Gegenstand einer Handlung unterworfen wird, sondern im Gegenteil, dass er etwas einer Handlung unterwirft, wogegen der merkmallose Kasus das Vorhandensein einer derartigen Handlung nicht kennzeichnet.» (JAKOBSON 1936. 62).

4. Jakobson'ek egindako lantxoan beste bi korrelazio aipatuak dira: «**Stellungsrelation**» eta «**Umfangsrelation**» direlakoak. Ikus dezagun «**Stellungsko-**

rrelation» delakoa zer den. Seinalatzen du: perpaus batean agertzen diren partizipanteek bazterretako erlazio dutela perpausaren erdiarekin («Randkasus» =markatutako kategoria); ez markatutakotan, berriz, distinzio horri buruz ez da ezer adierazten (PARTIZIPAZIO delako dimentsioari buruz ikus BRETTSCHNEIDER 1984, SEILER 1984). Errusiaren bazterretako kasoak dira datiboa, instrumentala eta lokatiboa. Ez markatuak dira nominatiboa, akusatiboa eta genitiboa, orozko kasoak («Vollkasus») izan ezkeroz. Euskeran datiboa komunztaduraz finkatua da, baina datiboarekin ibiltzen diren aditzetan (*esan, eman* eta abar) ez dugu behar markatu datiboa (adibidez *esan dut* edo *eman dut*). Beraz euskeran ere datiboa markatuagoa da ergatiboa da absolutiboa baino.

Genitiboa euskeran bazterretako kaso bezala erabiltzen dela dirudi. Batzutan aditzarekin agertzen da, adibidez:

(6) semearen ikustera noa (LAFITTE 1962, § 480)

(7) aita on horren ikustea guziek atsegin zuten
(cf. BOUDA 1972, 201)

beraz «rank-shifted clause» bezalako sintagma batean absolutiboaren funtzioan:

(8) (semea ikusiko dut).

↓

([semearen ikustera] noa)

Baina gehienetan izen sintagman arkitzen dugu genitiboa, noski. Beraz «pazientea» markatzeko funtzioan bazterretako kaso da. Halako gisan agertzen dira partitiboa, delimitatiboa ta leku-denborazko kasoak.

Korrelazio hontan begiratu behar zaien gainerako kasoak dira instrumentala, soziatiboa, prolatiboa (*semetzat hartu dut*) eta destinatiboa. Instrumentala arkitzen dugu tresna, langai eta moduaren funtzioan (*autoz, harriz, eskuz, asmoz*), baina noizean behin instrumentalak egilea ('ACTOR') markatzen du:

(9) hurrez maitatua (LAFITTE 1962, § 849)

Hemen ere bai *hurrez maitatua* «rank-shifted clause» bezala ulertzen da:

(10) (hurrek maite dute)

↓

([hurrez maitatua] da)

Beraz ekuazio bat ezar dezakegu:

(11) ERG : INSTR = ABS : GEN

Ergatiboa eta absolutiboa orozko kasoak dira, baina absolutiboa eta genitiboa kontesto batzutan horien funtzioan ager ditekete; horrexegatik kaso bi hauek orozko ta bazterretako kasoen bitartean klasifikatu behar genituzke.

5. Jakobson'ek proposatu zuen azkeneko kasoen oposizioa deitzen da «**Umfangskorrelation**»; horrekin seinalatzeko da, partizipanteak ze gradotara edo zenbateraino finkatuak diren diskursoan: gutxi-xamar finkatuak baldin ba dira, markatutako kategoria bezala hartzen dira; halaxe adibidez errusierazko eta latinezko genitiboak. Bestela esan: markatutako kategoriaren bidez izendatzen den objektua ez da agertzen kontzientzian oso-osoki, zegatutako manerara baizik. Euskeran, delimitatiboa eta partitiboa halako kasoak dira «par excellence»:

Beraz galdetzen baldin ba'dugu

(12) ogirik gelditzen al zaizu?

halako galderarekin OGIren **konzeptua** kontzientzian ba'dugu, baina ez ogi berezi bat edo beste. Eta objekturik ez ba'dugu batere, partitiboa erabiltzen ere da:

(13) ez dago ogirik

Delimitatiboa berdin-xamarra dugu: izendatzen duen objektua ez da agertzen osoki diskursoan: *-ko* batekin bukatzen den hitz edo sintagma bat beti *determinans* ('modifier') bezelaxe arkitzen den ezkereroz, dagokion *determinatum* ('head') osoki sartzen eta hartzen da diskursoan.

Beraz gutti gora bera delimitatiboarentzat balio luke Jakobson'ek errusierazko genitiboari buruz esan zuena:

«Der G an sich besagt nur, daß der Umfang der Teilnahme des Gegenstandes am Sachverhalte der Aussage geringer als sein gesamter Umfang ist. In welchem Maße der Umfang des Gegenstandes beschränkt wird, das bestimmt der sprachliche oder der außersprachliche Kontext.» (JAKOBSON 1936. 63).

Galde genezake, orain, euskerazko delimitatiboa ta genitiboa zertan ezberdinak diren. Dударik gabe, erantzuna izango da: delimitatiboa bizigabeko (edo <-BIZIDUNTASUN> bereizgarria duen) sintagma batean bakarrik ager daiteke, beraz biziduntasunari buruz markatutako kategoria da *-genitiboa*, ordea, ez markatutako kategoria da (*etxearen gibelean* eta *aitaren gibelean ere bai*). Beraz bereizpen hontan («Umfangskorrelation») deitzen denean) lehen ikusi duguna arkitzen dugu: Jakobson'ek oposizio pribatibo baten bidez deskribatu zituen fenomenoak hobeto balia genitzake markatasunaren hierarkia baten bidez: EZ MARKATUA... > x MARKATUA (0 < x < 1)... MARKATUA. Hori da gaurko linguistikaren ikus-modua (ikus adibidez: COMRIE 1981 (kap. 7-9), HOPPER & THOMPSON 1980, SILVERSTEIN 1976, 1981, TSUNODA 1981). NB: Posposizioak genitiboarekin eta ez delimitatiboarekin—ibiltzen dira, zeren posposizioen erdiak (adibidez *gibel*, *fagore* eta abar) bizidun diren izakiekin ikusiak bait dira.

6. Bestaldetik aipatu behar dugu Jakobson'ek nola konprenitu zuen kasoen esannahi orokorra ('Gesamtbedeutung'). Berak ikusten zuenez, oposizio

oso gutxitan dauden bereizgarri semantikoen bilduma bat ('ein Bündel von semantischen Merkmalen'/ 'a cluster of semantic features') bezela agertzen dira:

«A case system is defined as the sum total of similarities and dissimilarities of meanings, i.e. the sum total of oppositions between the cases...» (DE GROOT 1956a. 188).

Halako analisia hizkuntza bakoitzarentzat egin behar litzateke. Jakobson'ek errusiarentzat oso sistema koherente bat ezarri zuen: aipatutako hiru bereizpenekin, eta noski, bakoitzarentzat, markatua ala ez markatua dela, hiru oposizio hauetan. Konzepzio hontan Sebeok'ek egin zuen bere tesisa hungariarri eta suomierari buruz (SEBEOK 1946). Bost bereizgarri ezarri zuen ikerpen hontan: 'Location, Direction, Marginality, Limitation, Closeness'. Hizkuntz hauetan leku (denbora)zko kasoen logika garbi-xamarra da (AUSTERLITZ 1968); hauekin gonbaratuz, euskaran ez dugu hainbeste bereizpenik, baina, dena dela, kasu horien sistema begi bistan dagoela iruditzen zait. Esana laburtuz, egin dezagun kasuen taula bat. Lehen ikusi dugunez, ezin ditugu klasifikatu oposizio pribatiboz kaso denak, beraz hiruzpalau gradu jaso behar dira. Jakobson'en gisan aipatutako hiru oposizioak agertzen dira taula hontan:


(A) 'Bezugskorrelation' delakoan (§ 3; **ERG** markatua, **ABS** ez markatua);

(B) 'Stellungskorrelation' (§ 4) agertzen diren kasoak (zenbateraino izendatutako partizipanteek parte hartzen duten esaldian);

(C) 'Umfangskorrelation' delakoan (§ 5) dauden kasoak (zenbateraino izendatutako partizipanteek —osoki ala osagabeki agertzen diren esaldian edo diskursoan; hemen lau grado hartu ditugu (taularen izaltsutako aldean).

(14)

		ERG =	
		DAT	
	INS	DEST	
	SOZ		



Bibliografia

- AGUD, Ana. 1980. *Historia y teoría de los casos*. Madrid: Gredos.
- AUSTERLITZ, Robert. 1968. «L'ouralien». André MARTINET (ed.) *Le langage (=Encyclopédie de la Pléiade 25 [Paris: Gallimard])* 1331-1387.
- BENVENISTE, Emile. 1962. «Pour l'analyse des fonctions casuelles: le génitif latin». *Lingua* 11. 10-18 (= *Problèmes de linguistique générale I* [Paris: Gallimard. 1966]) 140-148).
- BOSSONG, Georg. 1984. «Ergativity in Basque». Ms. 83 pp.

- BOUDA, Karl. 1972. «Die Syntax einiger baskischer Kasus». *FLV* 11. 195-205.
- BRETTSCHEIDER, Gunter. 1984. «PARTIZIPATION verknüpft mit NEKTION». *Arbeiten des Kölner Universalienprojekts (akup)* 59. 1-22.
- COMRIE, Bernard. 1981. *Language Universals and Linguistic Typology. Syntax and Morphology*. Oxford: Basil Blackwell.
- DE GROOT, A. Willem. 1956a. «Classification of Cases and Uses of Cases». *For Roman Jakobson. Essays on the occasion of his 60th birthday, 11 October 1956, compiled by Morris Halle, Horace G. Lunt, Hugh McLean, Cornelis H. van Schooneveld*. The Hague: Mouton. 187-194.
- DE GROOT, A. Willem. 1956b. «Classification of the Uses of a Case illustrated on the Genitive in Latin». *Lingua* 6. 8-65.
- FOLEY, William & Robert D. VAN VALIN. 1984 (to appear). *Functional Syntax and Universal Grammar*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HJELMSLEV, Louis. 1935/1937. *La catégorie des cas. Etude de grammaire générale*. (=Acta Jutlandica 7: 1 [1935] 1-184, 9: 2 [1937] 1-78).
- HOPPER, Paul & Sandra THOMPSON. 1980. «Transitivity in Grammar and Discourse». *Language* 56. 251-299.
- JAKOBSON, Roman. 1936. «Beitrag zur allgemeinen Kasuslehre». *TCLP* 6. 240-288 (=Readings in Linguistics II, ed. by Eric P. HAMP, Fred W. HOUSEHOLDER, and Robert AUSTERLITZ. 1966. Chicago & London: The University of Chicago Press. 51-89).
- KUIPERS, Aert H. 1962. «The Circassian Nominal Paradigm: A Contribution to Case Theory». *Lingua* 11. 231-248.
- KUIPERS, Aert H. 1975. «On Symbols, Distinctions and Markedness». *Lingua* 36. 31-46.
- KURYLOWICZ, Jerzy. 1949. «Le problème du classement des cas». *Bulletin de la Société Polonaise de Linguistique* 9. 20-43.
- LAFITTE, Pierre. 1962. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, édition revue et corrigée. Bayonne: Editions des Amis du Musée Basque et «Ikas».
- MALLINSON, Graham & Barry J. BLAKE. 1981. *Language Typology. Cross-linguistic Studies in Syntax*. Amsterdam ...: North-Holland.
- MELCUK, Igor A. 1984. *Toward a Definition of Case*. Ms. 78 pp. (University of Montreal).
- MORAVCSIK, Edith A. 1978. «On the Case Marking of Objects». *Universals of Language*, volume 4. *Syntax*, ed. by Joseph H. Greenberg e.a. Stanford, Calif.: Stanford University Press. 249-289.
- SEBEOK, Thomas A. 1946. *Finnish and Hungarian Case Systems: Their Form and Function*. Uppsala: Appelbergs Boktryckeriaktiebolag. [=Acta Instituti Hungarici Universitatis Holmiensis. Series B. Linguistica 3 (Stockholm)].
- SEILER, Hansjakob. 1984. *Die Dimension der PARTIZIPATION (Valenz, Transitivität, Kasusmarkierung usw.)*. Vorlesung im WS 1983/84 bearbei-

- tet von Michael Kurzidim und Thomas Müller-Bardey. Köln: Institut für Sprachwissenschaft. 139 pp.
- SILVERSTEIN, Michael. 1976. «Hierarchy of features and ergativity». R.M.W. DIXON (ed.) *Grammatical Categories in Australian Languages*. Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies & New Jersey: Humanities Press. 112-171.
- SILVERSTEIN, Michael. 1981. «Case marking and the nature of language». *Australian Journal of Linguistics* 1. 227-244.
- TSUNODA, Tasaku. 1981. «Split case-marking patterns in verb-types and tense/aspect/mood». *Linguistics* 19. 389-438.
- WHORF, Benjamin Lee. 1945 (1937) «Grammatical Categories». *Language* 21. 1-11.
- WIERZBICKA, Anna. 1981. «Case Marking and Human Nature». *Australian Journal of Linguistics* 1. 43-80.
- WIERZBICKA, Anna. 1983. «The Semantics of Case Marking». *Studies in Language* 7. 247-275.